

# Besteoi laguntzea helburu

Autopistatik Ermuan sartzen den jendeak, bidesaria ordaintzen duen bitartean, ezin dio eskumara begiratzeko tentazioari kontraetsi; kanpokoak herri honi buruzko lehen ideia hartzen joateko, eta bertakoak Gurutze Gorriko "mutilak" zer egiten ari diren jakiteko. Bitxia bada ere, herri osoak daki non dauden eta zelan ipini kontaktuan beraiekin zer bait gertatuz gero, baina halere, orokorrean erakunde honek oso ezezaguna izaten jarraitzen du, jendeak bakarrik gogoratzen baitu premiazko kasuetan, eta ez du kontutan hartzen eguneroko lan isil bezain garrantzitsua.

Maiatzaren 8an Gurutze Gorriaren Nazioarteko Eguna ospatzen da munduan eta guregandik hurbilago, ekainaren 14an autopista ondoko Sorostetxeak 10 urte beteko ditu. Bi data hauek eta orain dela gutxi VI. Centenarioko egoitza berria zabaldu dutela aprobetxatuz, jende talde honen lanera hurbildu gara.

## Herraminta kutxa bat botikin gisa

Ermua eta Eibarko Gurutze Gorria 1979an jarri zen martxan, lehen unean izen hori barik funtzionatuz baina funtsean lan bera eginez. Sortze hau lagun talde baten ekimenaren ondorioa izan zen, 22

pertsona biltzea lortu zutelarik, eta berehala kanporako giza laguntzan eta San Pelaioko jaietan laguntzen hasi ziren. Erdikokaleko lehen lokala 1981ean iritsi zen, Ermuko sendi batek utzita, eta urte horretan sortu zen ofizialki Herri Asanblada, orain Herri Bulegoa dena.

Garai honetan asteburuetan prestatzen zen zerbitzua, ostiraletik igandera bitartean, jai eta futbol partiduekin batera,

kutxa bat eta ohatila bat soilik, eta irrati bakarria anbulantzian zegoenez, askotan baten batek bertan egin behar zuen lo".

## Gurutze Gorria ez da anbulantzia bakarrik

Piskanaka erakundea zabaltzen joan da, bai jendez, orain 222 bolondres daude, bai baliabide materialez. Atal berriak sortu dira, beste erakunde batzuk iristen ez ziren beharrian kasuetara ailegatu nahian. Honenbestez, gutxitu psikikoekin, etorkinen integrazioan, giza baztertzearen aurka eta beste hainbat arlotan egin da lan, jendeak gehien bat talde honen lana anbulantzia zerbitzuarekin lotzen badu ere. Eta normala da, zeren 1993an 1.000 pertsona baino gehiagori lagundu baitzieten, aurtan kopuru hori bikoiztu daitekeela uste dutelarik, DYA 088 zerbitzutik kanpo geratu delako.


1984an Sallabenteko postua zabaldu zenetik, urteko 365 egunetan izan da zerbitzuan, eguneko 24 orduak. Honek lan gehiago baina baita ere jende gehiago erakartzea suposatu du, baina Jesus Portugalentzat ez dira nahikoak, "boluntarismoa gero eta eskasagoa da, eta laguntzera etorriko zaigun jende gehiago behar dugu".

Iosu Etxaniz



Sallabenteko Sorostetxearen inaugurazio argazkia.

baliabideak oso urriak baziren ere. Horrela, Jesus Portugal, kanpo harremanetarako arduradunak komentatzen digunez " oraindik ez zegoen ez anbulantziarik ez irratarik, eta utzitako furgoneta eta ohatila batekin funtzionatu behar zen". geroago Udalak lehen anbulantzia laga zuen, baina ez zeukan ia osasun materialik, "egurrezko herraminta



Zubiaurre, 12  
Tfnoa. 17 01 59

ERMUA

ILUN

pub